

Euskaltzaindia Bartzelonako *Liber* Azokan izan da

Institut d'Estudis Catalans (IEC), eta Consello da Cultura Galega erakundeekin batera, Euskaltzaindia Bartzelonako *Liber* Azokan izan zen. Azoka irailaren 29tik urriaren 1era egin zen, bertan liburuarekin zerikusia duten profesional ugari parte hartu zutelarik. Aipatu hiru erakundeak erakustoki berean izan dira. Gainera, leku berean, *Textos Medievals Catalans* taldeak ere beronen azken argitalpenak erakutsi zituen.

Merkataritza ikuspegitik, nazioarteko liburu azoka honek garrantzi handia dauka, bai Espainiar Estatuan, bai eta Hegoamerikan ere. Bertan, ekoizpena erakustez gain, profesionalek elkarren berri izateko eta akordioak bideratzeko topaleku ona dute. Euskaltzaindiak bere azken lan eta argitalpenak aurkeztu zituen bertan.